



Tolosako Babarrunaren Astea, hilaren 18tik 21era

AURKEZPENA ▶ Atzo egin zuten, Donostian; zenbait berrikuntza izango dira aurtengo lehiaketetan

EKITALDIAK ▶ Askotarikoak izango dira: lakari enkantea, kirol probak, musika, azoka, dantza jaialdia... ▶ 3



Babarrunaren Astea aurkeztu zuten atzo goizean ekimenaren sustatzaileek Foru Aldundiak Donostian duen egoitzan. LEIRE MONTES

BERASTEGI ▶

Ekitaldiz betetako Kultur Astea abian da

Hitzaldiak, musika, antzerkia, afaria... izango dira, besteak beste ▶ 5

TOLOSALDEA ▶

Sinadura bilketa jarri du abian Etxerat-ek

Mahaia ipiniko ditu, «presoak Euskal Herrira ekartzeko» ▶ 4

TOLOSA ▶

Espania eta Frantziari intsumisioa egiteko deia

Euskal naziotasuna aldarrikatuz, protesta ekintza egin dute ▶ 4

GEHIGARRIA ▶

Etxea apaintzerako orduan, joera berriak

Modari jarraitzen dio jendeak hor ere ▶ 14

TOLOSALDEA - LEITZALDEA ▶

HITZAren balioa nabarmendu dute 'Argia' aldizkarian

Euskarazko prentsaren hedapenari buruz aritu dira 'Larrun' gehigarrian ▶ 2

ELOLA
ALTZARIAK

Banatzaile Ofiziala **bede**

- Etxeko altzariak.
- Ordenagailuz egindako proiektuak.
- Armairu enpotratuak neurrira.

Lizardi poeta, 2 - Tel.: 943 65 29 01 - TOLOSA

KOMUNIKABIDEAK ▶



Joxe Manuel Irigoien, Joxean Agirre, Mikel Irizar, Xabier Letona eta Marbelo Otamendi, Larrun gehigarriaren mahainguruan. DANI BLANCO - ARGIA

AITOR MENDIA

Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua hasi zuten asteartean, Bilbon. Ostirala arte da batzarra, eta nazio mailako hedabideez hitz egiten ari dira, baina herri komunikabideez ere, Karmelo Landa EHUKo irakasleak igandean *Berria*-n zioen bezala, herri egunkariaren «nortasun eta jarrera sistemikoa ere bat datorrelako euskal kulturaren sistema antolatzeko norabidearekin». *Argia* astekariari mahaingurua antolatu zuen kongresuaren atarian, *Larrun* gehigarriarako, eta hor ere irten zuten tokian tokiko komunikabideen gaiak; batik bat, HITZA-ren proiektuak.

«Badirudi, [informazio lokalean] gero eta gehiago eskualdera jo dela, maiztasun desberdinekin...», dio Joxe Manuel Irigoienek. «Azkenaldian, euskarazko herri prentsaren nobedadea *Goienkaria*-k eta *HITZA* markatzen dute. Biek antzera jokatu dute, enpresa-egitura handiago eta zabalagoak osatu eta formato berriko produktuak sortuz». Baztangoa da Irigoien, eta han ere eskualde bezala ari dira bertako informazioaren alorrean: telebista dute, aldizkaria...

Mikel Irizar ere eskualde ereduaren alde lan egindakoa da, Deba Goienan hainbat proiektu eraman dituelako aurrera; prentsaren arloan, *Goienkaria* astekaria da emaitzetako bat. «Gainera, saiatu ginen sektoreari ere zabaltzen. Baina Topagunea ahul zegoen, eta, bestalde, administrazioak berehala susmopean jarri zuen proiektua. Urtebete inguruko koarentan jarri zuen. Diseinatuta geneukan Gipuzkoarako plan berezi bat, zortzi eskualdeko multimedia garatzeko, eta ari ginen Aldundiare-

HITZAren balioa nabarmenduz

‘Argia’-ren gehigarrian euskarazko prentsaz aritu dira, eta HITZA proiektua hizpide izan dute

kin lantzen, baina koarentena horretan galdu zen hori garatzeko aukera. Egun Goiena sendo dago, baina eredu horrek ez du aurrera egin. Bitartean garatu da HITZAren proiektua. Egia da momentu batean ematen zuela zein eredu nagusituko zen herri bakoitzean. Gaur egun, heldu da ordua esateko, etorkizuneko garapena HITZA sortzen ari den dinamikaren gainean eraiki behar dela, prentsako muga gainditu eta multimediara eginez».

Martxelo Otamendi, *Berria*-ko zuzendariak ondo ezagutzen du informazio lokalaren mundua ere, *Galtzaundi* Tolosaldeko aldizkariaren sortzaileetako bera izan zelako, baita HITZA bezalako lehen herri egunkariaren sustatzaileetako ere: *Tolosaldean Eguneroren*, *Egunkaria*-ko kide bezala. Gaur egun *Berria*-ren enpresa EKTk (Bertako Hedabideen bitartez) bost Hitzetan hartzen du parte. «Pentsatu genuen egokia izan zitekeela herri aldizkariarekin elkarlanean aritzea. Erabaki genuen bazela garaia oso erdararena eta oso enpresa jakin batzuenaren esparrua euskarazkoa egiteko».

Xabier Letona *Argia*-ko zuzendaria ere elkarlanaz min-

tzatu zen: «Nik egoera horretan ikusten dudana da, txikiak irentsia izateko duen beldurra. Handiak [EKTz ari zen] bere zabalak nola egiten duen da kontua».

Bertako Hedabideak, HITZAren proiektuarekin hasi zenetik, 17 euskara elkarterekin jarri da harremanetan, eta haie-tatik 15ekin ari da elkarlanean proiektua garatzen, edo garatzeaz dauka. Euskara elkarte bakoitzak erabakitzen du bere aldizkariarekin zer egin.

Irigoienek ustez, «HITZAren estrategia eta politika askoz ere inteligenteeagoa da *Correo*-ren jarrera baino. Bai ausardi-az edo ikuspegiz, EKT izan da gaztelaniaz egiten dena euskaraz egitea planteatu duena. Planteamendua perfektua iruditzen zait enpresa ikuspegitik, eta marketing eta eszenifikazio aldetik».

HITZA egunerokoan euskarazko irakurle berriak ari da sortzen, eta horri etekina atera diezaiokete euskarazko beste hedabideek. Otamendik dio *Berria*-k baduela asmorik: «Gure helburua da eguneroko prentsa idatzian erdal prentsa duen monopolioa haustea. Gauza bat lortu dugu: egun bailara batzuetan eguneroko gehien zabaltzen den mantxeta ez da *El Diario Vasco*-rena. Ez dugu ezkatzen gure asmoetan badagoela denborarekin irakurle harrobi bat lantzea ere. Tolosaldean eta Leitzaldean 7.500 HITZA banatzen ditugu eguneroko, eta horietatik %5 ekartzea *Berria*-ra edo *Argia*-ra, sekulako pausoa litzateke».

Joxean Agirre, *Gara*-ko kazetariak garbi du: «Euskarazko prentsaren barruan norbait handituz joatea ez da arriskugarria, mesedegarria baizik. Gure benetako arriskua Prisa eta Vocento bezalako taldeen handitasuna da».

PARTAIDEAK ▶

Joxe Manuel Irigoien. *Tipitapa*-ko koordinatzailea (Baztan).

Joxean Agirre. *Gara* egunkariako kazetaria.

Mikel Irizar. *Goienkaria* astekariako eta Goiena TBko sortzaileetako.

Xabier Letona. *Argia* astekariako zuzendaria.

Marbelo Otamendi. *Berria* egunkariako zuzendaria.

5 HITZA-K ▶

Tolosaldekoa eta Leitzaldekoa. 7.500 harpidedun.

Oarsoaldekoa. 6.000 harpidedun.

Lea-Artibai eta Mutrikukoa. 5.300 harpidedun.

Urola-Kostakoa. 7.000 harpidedun.

Goierrikoa. 8.500 harpidedun.

Denetan bazkideak. Tokian tokiko herri aldizkariaren elkarlanean, eskualdeko gizarte eragileak eta Bertako Hedabideak (EKTkoa).

Ezaugarriak. 8 orrialde, txerxa banatuak.

TOLOSA ▶

Di Bosco Quartet kontzertuan, gaur, Frontonen

Di Bosco Quartet taldeak kontzertua eskainiko du, gaur, 23:30ean, Fronton kafeategian. Marc Tambourineguy (ahotsa eta teklatuak), Eric Ruiz (baxua), Pierre Tarbouriech (bateria) eta Fabrice Peritore (perkusioa) musikariek sortu zuten taldea, 2002. urtean. *Latin jazz*-a eta Karibeko eta Brasilgo musika jotzen dute bere emanaldietan. Sarrera doan da.

TOLOSA ▶

Etzi goizerako ibilaldia antolatu du Harizpek

Harizpe jubilatuen eta pentsiodunen elkarlanean etzi goizerako txangoa antolatu du. Honakoa da ibilbidea: Harizpe -biala - Gorostidi atzealdea - Etxe-Berri - Pixuaga - Santa Luziko ermita - Samaneta ikastetxea - Uzturre sagardotegia - Renault zubia - Belate - Korreo kalea - Harizpe. Bi orduko irteera izango da, eta 9 kilometro egingo dituzte. Ibilaldia egiten dutenentzat hamaiketakoak presatuko dute Harizpeko elkartean. Ibilaldira joan nahi duenak bertan 09:30ean agertu besterik ez du.

TOLOSA ▶

Mus Txapelketa Azkarra, bihar, Beotibarren

Fronton kafetegiak antolatuta, IV. Mus Txapelketa Azkarra egingo dute, bihar, Beotibar pilotalekuan. 16:30ean hasiko dira jokoak, baina 16:15erako izena eman behar da. Frontonen; bikote bakoitzak 25 euro ordaindu behar ditu. 4 erregetara, 6 hamarretakora eta 3 ustelara jokatu dute. Zortzi sari banatu dituzte: lehena sailkatu den bikoteak 1.200 euro, garaikurrak, txapelak eta ardo kaxa jasoko ditu; bigarrenak 600 euro eta garaikurrak; hirugarrenak 300 euro; laugarrenak 150 euro; bosgarrenak 100 euro; seigarrenak 50 euro; zazpigarrenak arkume bat eta zortzigarrenak bi ardo kaxa. Gainera, Ordiziko Azokako gazten saria irabazi zuten ekizlearen hainbat gazta zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.

BABARRUNAREN ASTEA ▶

EGITARAUA ▶ OSTEGUNETIK IGANDERA

Hilaren 18tik 21a bitarte izango da Tolosako Babarrunaren Astea. Babarruna bera izango da protagonista, eta hari lotutako ekitaldiek hartuko dute herria. Baina dantza, musika, kirola eta bestelako ikuskizunak ere ez dira faltako. Jai giroa ziurtatuta dago.

HILAREN 18A, OSTEGUNA

19:00. Babarrun Pintxo Lehiaketan parte hartu duten tabernekek eta jatetxeek barran aurkeztuko dituzte egindako pintxoak.

HILAREN 19A, OSTIRALA

22:00. Pilota jaialdia, Beotibar frontoian.

HILAREN 20A, LARUNBATA

08:00. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen VII. Lehiaketari hasiera emango zaio, Trianguloan.

09:00. Azoka Berezia, Trianguloan: babarrunak, piperrak, odolkiak, txerriak, gazta...

10:00. Oriaki txaranga kalez kale ariko da, herria grotzen.

10:30. Giro Arte dultzaina taldearen eta Iruñea alde zaharra eta Biribilketa erraldoi eta buruhandien konpartsen emanaldiak, Alde Zaharrean.

11:00. *Diario Vasco*-k antolatutako pilota txapelketaren kanporaketak, Beotibarren.

11:30. Txinparta elkarteak antolatutako VI. Txapela nork ondoen jantzi Lehiaketa, elkartearen egoitzan (Arostegetia kalea).

11:30. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako epaimahaiaik

bere lanari ekingo dio, Trianguloan.

12:00. Babarrun jatea, Trianguloan.

12:30. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako sari banaketa. Ondoren, lakari bat babarrunaren enkantea egingo dute.

17:30. Potxin eta Patxin pailazoak, Berdura plazan.

19:00. Incansables txarangaren emanaldia (1. saioa).

22:00. Tolosako Udaberri, Ibarra Alurr eta Villabonako Oinkari dantza taldeen

emanaldia, Beotibar pilotalekuan.

00:00. Incansables txarangaren emanaldia (2. saioa).

HILAREN 21A, IGANDEA

08:00. Tolosako Babarrunaren VIII. Lehiaketa Gastronomikoa, Ferialekuan.

11:00. VII. Artzain-bxakur Lehiaketa, lurreamendin.

13:00. Tolosako Babarrunaren VIII. Lehiaketa Gastronomikoaren epaia eta sari banaketa.

14:30. Herri bazkaria, Ferialekuan.

LEIRE MONTES

«Tolosako Babarrunak jateko gogoa ematen du gaurko eguraldiak». Prentsaurrekoa hasi baino lehen ordezkari guztien ahotan zebilen esaldia da hori. Babarrunak noiz iritsiko zain ziren guztiak, Donostian, Foru Aldundiko batzar aretoan. Eguraldi txarrak eta eurriak, beste behin, arazoak sortu zituen errepelean, eta bidean zen oraindik agerraldiaren protagonista. Azkenean iritsi zen, eta gonbidatu berezia mahai gainean jarrita hasi zuten ekitaldia: Tolosako Babarrunaren Astearen aurkezpena, hain zuzen.

Hilaren 18tik 21era bitarte egingo dute Tolosan Babarrunaren Astea. Prentsaurrean bezala, bertako produktu hau izango dute abiapuntu egun horietako ekitaldi gehienek. Dantza, musika, kirola eta era guztietako ikuskizunak ere ez dira faltako.

Aurtengo uzta «dazkoa baino dezente hobea» izan delako «pozik» agertu ziren ordezkariak. Nuria Lopez de Gereñu Landa Ingurunearen Garapenerako diputatuaren esanetan, «berriz ere babarrun ona eta kalitatekoa jasotzen ari gara. Lan handia egiten da hori horrela izan dadin; eta bezeroaren fidelotasuna da eskerririk onena. Foru Aldunditik dugun altxor hau bultzatzen jarraitu nahi dugu».

Mari Karmen Iradi Tolosako Babarruna Elkarteak lehendakariak azaldu zuenez, «aurten 20 bat mila kilo babarrun» jasotzea espero dute. Nahiz eta iazkoarekin ezin alderatu, aurten ere lehorterik izan dela, eta horregatik %100 jasoko ez dela esan zuten. Irailaren amaieran hasi ziren biltzen, eta hil honen erdialdean amaituko dute. Kiloko zakua 12 euro balio ditu, iaz bezala.

Jai giroa, babarruna aitzaki

Tolosako Babarrunaren Astea aurkeztu zuten atzo, Donostian; hilaren 18tik 21era, babarrunari lotutako ekitaldiak eta festa giroa izango dira nagusi Tolosan



Ezker-eskuin: Lumbreras, Peon, Lopez de Guereñu, Gomez Eloseg, Iradi, Ruiz eta Telleria, atzo. L.MONTES

Era berean, eta Tolosako Babarruna landatzen duten Gipuzkoako 57 baserriarren izenean, Babarrun Festara etortzeko gonbita egin zuten Iradik. «Jai giroan, babarruna dastartzeko aukera» izango dela gogoratu zuten.

Olatz Peon alkateordeak, bestalde, produktua berreskuratzeko egindako lana azpimarratu zuen agerraldian: «Jaki hau berreskuratzen ari gara. Urtetan egon da etxeko sukaldetan, zokoratuta nolabait; eta orain, ondo baino hobeto irabazita, Euskal Herriko eta Espainiako jatetxerik garrantzitsuenetako izar bihurtu da». Besteak beste, abuztuan Barzelonako Forum-ean izan zen, eta irailean Milanen, *slow-food* mugimenduak antolatutako munduko konbentzioan.

Babarrunaren garrantziaz ez ezik, Tolosako azoken nortasunaz ere aritu zen Peon, eta berriki jaso duten kalitateko K saria horren erakusle dela esan zuen: «Tolosako azokak erreferentzia izaten jarraitzen du; besteak beste, gure lurraldean ematen dituen produktuak babetu eta bultzatzen dituelako».

Aurten, zenbait berrikuntza

Jose Miguel Gomez Eloseg, Tolosako Udaleko Garapen Ekonomiko, Turismo eta Enplegu departamenduko lehendakaria aurtengo egitarauak izango dituen berrikuntzez mintzatu zen. Tolosako Babarrunarekin egindako Pintxo Lehiaketa da horietako bat: hilaren 18an, ostirala, izango da, 19:00etan.

«Tolosako ostalari askok hartuko dute parte. 11 edaritegik eta jatetxek hitza eman dute produktu honen inguruan errezeta berriak egiteko, eta ziur nago emaitzek harritu egingo gaituztela», adierazi zuen zinegotziak.

Lakariaren enkantea da aurten beste berrikuntzetako bat: «Ekoizleen Lehiaketa irabazten duen babarrunetik lakari bat salduko dugu enkantean, eta jasotako dirua Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango diogu». Nekazaritzarako neurria da lakaria, aleen edukierarekin, 4,625 litro, hain zuzen; XX. mende erdira arte erabili izan dute. Lakari bat babarrunaren enkantea larunbatean izango da, 12:30ean, Trianguloan.

Bestalde, Gure Kaiola elkar-

teak antolatu du igandeko Lehiaketa Gastronomikoa, ohi bezala. 1987an egin zuten lehen-dabiziko aldiz; haren haritik sortu ziren, gero, Tolosako Babarrunaren Kofradia 1989. urtean, eta Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Elkarte 1994an.

Oraingoz, 18 bikotek eman dute izena lehiaketarako: horietako 16 Gipuzkoakoak dira, 1 Nafarroakoak, eta beste 1 Arabakoak. Carlos Lumbreras Gure Kaiolako ordezkariak aurtengo «berezitasuna» izan zuen hizpide: «Lehiaketaren oinarriek diote aurreko edizioan irabazi duen bikoteak ezin duela hurrengoan parte hartu. Arabako bikote batek irabazi zuen iaz; eta aurten, berriz, hain emaitzek osatuko dute lan taldea». Martin Berasategi sukaldaria izango da epaimahaikideetako bat. Gainera, aurten estreinakoz, Euskal Herrikan kanpoko sukaldari bat izango da epaimahaian: Deniako (Alacant) Octavius jatetxekoa.

30 bat salmenta puntu izango ditu Azoka Berezia. Eta Ekoizleen Lehiaketan 20 lagunek hartuko dute parte. Roberto Ruizek (Fronton jatetxea) eta Angel Oruesagastik (Orue erretegia) prestatuko dituzte jendaurrean.

Roberto Ruiz berak «babarrunari eskerrak» eman zikion atzoko aurkezpenean. «Gure produktu izateagatik, guretzako jaki preziatua izateagatik, merkatuan jarraitzeagatik, eta gure herriaren izenari lotuta egoteagatik, hemen eta kanpoan. Babarrunaren dohaina babarruna bera da».

GIZARTEA ▶



Atzo Trianguloan egindako kontzentrazioaren une bat. o. eskitxabel

Espainiari eta Frantziari intsumisioa egiteko deia

Kontzentrazioa egin zuten atzo Gazte Mugimenduko kideek Triangulo plazan

IMANOL GARCIA

Gazte Mugimenduko Frantziako eta Espainiako estatuen kontrako «intsumisio» kanpaina martxan jarri du eta atzo burutu zuen nazio mailako Intsumisio Eguna. Egun honen baitan Tolosako Triangulo plazan kontzentrazioa burutu zuten iluntzean, *Ez frantsesak, ez espainiarrak, euskaldunak eta kitto* lelopean. Ekitaldi berean EHNA gaitzat hartuta parodia pare bat egin zituzten. Horietako batean supermerkatu bateko kaxan EHNA ez onartu ondoren, «espainiar modura egin behar badituzte erostaketak, nahiago ez egitea», esanez aldarrikatu zuten euskal naziotasuna.

Urriaren erdialdetik abenduaren hasiera bitarte izango da intsumisio kanpaina Euskal Herri osoan. «Lurraldetasuna eta naziotasuna ardatz hartuta, intsumisio moldearen bidez, inposaturiko espainiar eta frantziar soberania kolokan jarri eta ukatuak zaizkion eskubideak herriarenak

egin ahal izatea» du helburutzat ekimen honek, Gazte Mugimenduko kideek diotenez.

«Euskaldunok ez dugu ez espainiar ez frantziar izan nahi», adierazi dute Gazte Mugimendutik. «Gu euskaldunak gara eta kitto, beraz, euskaldun bizitzeko eskubidea daukagu. Euskaldunok gure era irazten eta bizi nahi dugu. Ez dugu inor gure gainetik egotarik nahi, beraz, gure arbasoek egin ohi zuten bezala, intsumisio jarriera hartu beharra daukagu, gure herria desagertarazteko erabiltzen dituzten baliabide guztiei aurre eginez eta aldi berean intsumituz», gaineratu dute.

Intsumisio kanpaina honetan Tolosaldeko herri ezberdinek hartuko dute parte. Leku nagusienak Tolosa eta Ibarra izango dira. Bi herri haueetan Intsumisio Batzarrak eratu dituzte, «informatu, kanpaina aurrera eramanez eta egingo diren ekimen ezberdinak ahalik eta partehartzailean izan daitezkeen», esan dute Gazte Mugimenduko kideek.

GIZARTEA ▶

Euskal presoek Euskal Herriratzearen alde sinadurak bilduz

Nazio ekimen honi atxikita, Tolosaldeko eskualde honetako hainbat herritan ere mahaia jarriko dituzte bihartik aurrera

JAIONE ASTIBIA

Lehenago asteburuan euskal presoek alde lanean diharduten hainbat taldek aurkeztu zuten Euskal Herri osoan egin asmo duten sinadura bilketa kanpaina: azaroaren 13an hasi, bihar bertan, beraz, eta hurrengo martxora arte luzatuko den ekimena da, *Euskal preso politikoa Euskal Herrira* aldarrikapena berriz ere, «berrakibatitu eta errealtate bilakatu dugun uste osoz» burutuko dutena, han esan zutenaren arabera.

Ekimen honen aurkezpenan, besteak beste, Jon Enparantza eta Imanol Haranburuk hartu zuten parte, euskal presoek aldeko mugimenduko, Etxerat-eko eta preso egondako hainbat lagun artean. Horrela, presoek aldeko daramaten dinamikaren barruan kokatu zuten ekimen berria, presoek aldeko aldarrikapenak gaurko eztabaida politikoa eta behar politikoetan kokatzea «oso garrantzitsutzat» jo zituztelarik.

Eta hain zuzen ere, ildo horretan, ekimen hau burutzeko oraindik ere egunekoak diren arrazoiak aurkeztu zituzten: aurtun gertatu diren «18 euskal preso politikoren eta 14 senide eta lagun heriotzak»; eredu gisa «azken astean 3 presok jasan dituzten jipoi eta erasoak» berri emanez; «zigorra oso-osorik beteta izan arren, oraindik ere espetxeetan edukitzeak aginduak jaso dituzten presoek», oroituz; eta senideek asteburu jasaten duten auto-istripu arriskuari buruzko datuak eman zituzten, «101 laguni eragin diete aurtun izandako 36 istripuk», argituz eta «senideak jasaten ari diren odoluste ekonomiko itogarria» salatuz. Datu mordoska hauek eman zituzten, beraz, ezagutzera, bai euskal presoek eta bai beraien senide eta lagunek bizi duten egoera irudikatzen. Horregatik guztiagatik, «gure [senide eta lagunak] eta haien [presoek] bizien berme bakar» modura jo zuten euskal presoek Euskal Herriratzearen aldeko «darrria», beren

aburuz, «horrela bakarrik bermatuko baitira haien eta gure oinarrizko eskubideak».

Sakabanaketa politikak bai presoek eta bai senideen eta lagunek oinarrizko eskubide funtsezkoen eguneroko urraketa sistematikoa dakarrela baieztatu zuten. Bide batez, orain berriro «estatuek [Frantziakoak eta Espainiakoak] daramaten ildo hori are gehiago sakontzeko hartu duten erabakia», salatu zuten, presoak «gehiago urrunduz, sakabanatuz, bakartuz, eta beren ingurune politiko, sozial-kultural eta afektibotik deserrotu nahiz, haien bizi-baldintzak oraindik ere gehiago gordinduko dituzte», ziurtatuz.

Deialdi zabala

Hau guztia kontuan hartu, eta «azkenaldian presoek buruz sarrin mintzatzen diren politikari, eragile sozial eta sindikalei, hitzetatik ekintzetara pasatuz», indar metaketa modura aurkeztu zuten ekimen honetan parte hartzeko dei egin zieten, besteak beste, «horrenbeste sufrimendu sortzen ari den gatazka politikoa konpondean eman behar den aurrerapauso garrantzitsu eta ezinbestekotzat» baitute Euskal Herrian burutuko den sinadura bilketa.

Ekimen honen bulkatzaileek Euskal Herriak bizi duen gatazkaren jatorri politikoa ere argudiatu zuten, herri modura dituen eskubideen urraketatik eratorritakoa den heinean. «Urraketa hori borrokatetik sortutakoa da euskal preso politikoen kolektiboa» baieztatu zuten eta nahiz Espainiako, nahiz Frantziako estatuen aldetik kolektibo gisa «neurri politiko ankerrenak, tratamendu politiko berezituak» jasotzen ditute, adierazi zuten (izaera politiko hori begibistan utzi).

Horrela, «euskal preso politikoen kolektibo gisa dituzten eskubideak errespetatu egin behar zaizkie» aldarrikatu zuten, «martxan dagoen konponbiderako prozesuan beren ekarpenak aintzat hartzea», izanik horretarako bide bat.

Hala, euskal preso politikoen eskubide hauek guztiak bermatzeko bide bakarra euskal presoak Euskal Herriratzearen dela azaldu zuten eta ildo horretan kokatu behar dela bihar abian jarriko duten ekimena, «euskal gizartearen hain errotuta dagoen eta onespenez soziala duen» ekimena. «Aldarrikapena berrindartzea dator».

Tolosaldeko presoak

Tolosalde osoko 18 lagun dauka preso, Tolosaldeko Etxerat elkarteak argitaratu berri duen aldizkariaren arabera, eta horietatik «inor ez dago Euskal Herrian». Gertuen dagoena ere Valladoliden dago, 354 kilometro. Gainerakoak ikustera urrutirago joan behar izaten dute senideek eta lagunek, Puerto de Santamariara (Espainia), 1.132 kilometro eginez edo Fleury Merogisera (Frantzia), 911 kilometro bidean joanda. Bidean ibiltzeko darrak ariskuari, bidaia bakoitzeko egin behar izaten den diru-xahuketa ere erantsi behar zaio: bidaiari dagokionez bakarrik, 500-800 euro bitarteko dirutza uzten dute gutxienez asteburu, aparteko gastuak kontuan hartu gabe, betiere.

Bestealde, presoek jasaten duten tratua berezitu horren eredu gisa aipatzen dute, esaterako, 22 urte kartzelan daramatzan Jon Tapia zizurkildararren kasua; uneotan urrutien dagoen zonaldeko preso da: ezarri zioten zigorraren 3/4ak beteak dituen arren, oraindik kartzelan dute. Edo Villabona-ko Iñigo Guridi Lasak Curtiseko (Galizia) espetxean bizi duen egoera: erabateko isolamenduan, argi izpirik ere sartzen ez den eta hezetasunez blai dagoen zelda batean sartuta, 3 urte daramatza. Edo...

Ekimen honekin bat eginez, beraz, sinadura bilketarako mahaia jarriko dituzte eskualdeko herrietan bihar, ohiko lekuetan. Villabona, adibidez, bihar, 12:00etatik aurrera, Olaederra kiroldegia aurrean jarriko dute, eta hilaren 20an, Ikasle Egunaren inguruko festan ere izango da sinatzeko aukera.

iragarki laburrak ▶



Aukera paregabea!!
Leitza. Kale Nagusian dagoen taberna alokatzen da, egoera ezin hobean eta bezero finkoekin.
Leitza. Hiru logelako pisua salgai, sukalde-jangela, bainugelata eta bi balkoi. 144.242 euro.
Berrobi. Eraikitza berriko azken etxe atxiki unifamiliarra salgai. 225 m²-ko bizitza, 50 m²-ko garajea eta 40 m²-ko lorategiarekin. 2005eko uztailean entregatzeko. 306.516 euro. Kalitatezko bizitza eskuratzeko azken aukera!

Leitza. Jatetxea alokatzen da, ederra eta oso marba onean dabilena.

Amazabal kalea, 37-behea
 31880 LEITZA (Nafarroa)
Tel.: 948 51 05 34

BERASTEGI ▶ KULTUR ASTEA

Kultur Astea zabaldu berri dute, ekitaldiz beterik

Hitzaldiak, antzerkiak, argazkiak eta azoka izango dira ondorengo egunetan

EGITARAUA ▶

GAUR

21:00. *Plazaolako burdinola eta kultur ondarearen berreskurapen ezberdinak*, Juanxo Agirrerren eskutik.

BIHAR

17:00. Arantxa Kruz-en eskutik Ipuin kontaketa.
18:00. Futbol txapelketako finala.
22:00. Gilkitxaro antzerki taldearen *Elevator* antzezlan.

ETZI

09:00. Plazaolara eta Bizkotxera irteera eta argazki rally-aren hasiera, plazan.
16:00. Mus txapelketa azkarra eta herrikoa.
19:30. Donato Goienetxe eta Agurtzane Elustondo: trikitixa eta perkusio emanaldia.

OSTEGUNA (HILAK 18)

20:30. *Artzainak munduan* hitzaldia Josu Iztuetaren eskutik.

OSTIRALA (HILAK 19)

20:30. *Herri kirolak* hitzaldia eta erakustaldia Mikel Mindegiaren eskutik.

LARUNBATA (HILAK 20)

17:00. Txobxongiloak Behi-Bis taldearen eskutik: *Txakur beltz, handi eta...iletsu bat*.
18:30. Txokolatada Urepele kultur taldearen eskutik.
21:00. *Euskal Herriko flora eta fauna* argazki erakusketa-hitzaldia Ander Olaizolaren eskutik.

IGANDEA (HILAK 21)

11:00. Azoka Eguna. Gazta Lehiaketa. Argazki rally erakusketa. Berastegiko produktuak eta eskulanak izango dira eskuragai.
12:30. Gazta Lehiaketa, Ipuin Lehiaketa eta argazki rally-ko irabazleei sariak banatuko dizkiete.
18:00. Produktu dastaketa gazta, talo, sagardo eta ardoarekin.
20:00. Bertso antzerkia.



Pasa den urteko azoka egunean jende ugari hurbildu zen bertako produktuak ezagutzera. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo eman zioten hasiera Berastegin urteroko Kultur Asteari, eta asteburu honetan eta datorrenean hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Berastegiko Udala, Muñagorri guraso elkarte, Basurde elkarte, Urepele elkarte, Gaztainondo elkarte, Aldin kultur elkarte eta Muñagorri herri ikastetxea dira Kultur Astearen antolatzaileak. Leloa ere jarri diote: *Kultura 'udazkenez jantzita' dator Berastegira, haize epel eta eguraldi gozoaren moduan, hostoak mugituz eta fruitu ugariaren emale...*

Gustu eta adin guztietarako egitaraua prestatu dute antolatzaileek datozen egunetarako; asteburu honetan, adibidez, Plazaolako burdinolak hartuko du garrantzia. Gaur hitzaldia izango da Plazaolako burdinola eta kultur ondarearen berreskurapenaren inguruan Juanxo Agirrerren eskutik, eta etzi, Plazaola eta Bizkotx-era mendi irteera antolatu dute inguruena ezagutzeko.

Aipatzekoa da baita ere, igande goizean hasiko den argazki rally-a. Animatzen diren guztiek herriko plazara azaldu beharko dute, eta bederatzi ordutan argazkiak ateratzeko aukera izango dute udazkena gai bezala hartuta. Antolatzaileen esanetan, Berastegiko eremuan atera beharko dira argazkiak; herriko mugen barruan. Argazki hauen erakus-

keta azoka egunean jarriko dute, eta irabazlearen izena ere egun horretan esango dute antolatzaileek.

Bestalde, herrian osatutako futbol taldeek orain gutxi hasitako txapelketaren finala asteburu honetan jokatuko dute. Asteburu honetako egitaraua antzerkiak, mus txapelketak eta musikak osatuko dute, gainera. Datorren asteburuan, berriz, hitzaldiak, antzerkiak eta azoka eguneko ekitaldiak nagusituko dira.

Ostiralean izango den hitzaldian Mikel Mindegia aizkolaria bi enborrekin erakustaldi txikia egingo du lehenik eta behin, eta ondoren, herri kirolen inguruan ariko da solase-

an. Azoka egunak esango dio agur aurtengo Kultur Asteari, eta egun horretan ekitaldi ugari izango dira. Batetik, Berastegiko produktuak eta eskulanak izango dira eskuragai hainbat postutan. Eta bestetik, Gazta Lehiaketa egingo dute; ondoren, Ipuin Lehiaketa eta argazki rally-ko irabazleei sariak banatuko dizkiete, Gazta Lehiaketakoei bezala.

Eguna behar bezala amaitzeko gazta, talo, sagardo eta ardo dastaketa egingo dute herritarren artean eta iluntzerako bertso-antzerkia iragarri dute hainbat bertsolari ezagunekin.

Egitaraua zabala eta interesgarria, beraz, aurtengo Kultur Asterako prestatu dutena.

ARGAZKI RALLY-AREN OINARRIAK ▶

Adin guztietara irekia izango da etzi egingo duten argazki rallya, eta bertan parte hartu ahal izateko oinarriak, berriz, honakoak:

Izen-ematea. 09:00etan emango zaio hasiera argazki rally-ari karrete banaketarekin herriko plazan.

Iraupena. 9 ordutakoa izango da. Amaiera ere herriko plazan izango da, 18:00ak eta 18:30ak bitartean, lehiakideek rally-an erabilitako karreteak jasoz.

Materiala. Ohiko kamarak, analogikoak, erabiliko dira eta ez dira kamara digitalak onartuko. Banatuko den

karrete bakoitza 12 argazki osatua egongo da.

Gaia. *Udazkena eta hostoaren erorketa* izango da.

Aukeraketa. Argazkilariek 3 argazki aukeratu ahal izango ditu. Antolatzaileek jakinaraziko dute noiz egingo den aukeraketa.

Ibilbidea. Berastegiko mugen barruan atera beharko dira. **Saria.** Epaimahaia argazki hobereana ukeratuko du eta saritua izango da.

Irabazlea. Irabazlearen izena azaroaren 21ean izango den azoka egunean emango da ezagutzera. Egundon honetan, erakusketa egingo da ateratako argazkiekin.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIA

Gaur. Azpiroz M^L, Amaro auzunea 9, Tolosa. 943 67 51 18
Gimeno A, Elbarren 52, (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona_aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaldia. 687 41 00 22

anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Ileapaintzailea. Zute ileapaindegia: esperientzia handia duen neska edo mutila behar da. Asteartetik ostiralera: 10:00-18:00; larunbatetan: 9:00-14:00etara. Telefonoa: 943 67 19 34.

Ileapaintzailea. Langle bat behar dugu: ileapaindegi esperientziaduna. Interesatuak deitu: 609 79 27 87.

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburutan lan egiteko. 943 69 19 33.

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa salgai. Argibideetarako deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

SAN MARTIN EGUNA ▶

Eguraldi txarrak ez ditu zapuztu Amezketako eta Amasako jaietako ekitaldiak

Amezketan haurrentzako 'tren txu-txu'-a eta Amasan astoa eta bost gazteen arteko apustua izan ziren atzo San Martin Eguneko berritasun nagusiak



Amezketan. Aterkiak irekita, tabernara edo etxerako bidean jarri ziren gehienak, San Martingo basilizan meza entzun ondoren. O. ESKITXABEL



Amezketan. Euria egin arren, plazatik abiatu eta herria trenez zeharkatu zuten herriko txikienek gurasoek lagunduta. O. ESKITXABEL

I. GARCIA / O. ESKITXABEL

San Martin Eguneko udatoxoaren esaera ez zen bete atzokan; egun guztian zehar aterkia eskuan ibiltzeko moduko eguna izan baitzen atzokoa. Hala ere, euriak ez zien Amasan eta Amezketan antolatutako ekitaldiei hainbeste eragin.

San Martingo basiliza bisitatu zuten eguna amezketarrek; meza entzun ondoren, aterkiak zabaldu eta tabernarako edo etxerako bidean jarri ziren gehienak euri zaparradatik babesteko. Bertako adineko batek esan zuenez, «San Martin Egunean oso eguraldi ona edo oso txarra egiten du». Eta aurten, iaz bezala, eguraldi txarra tokatu da. Mañukorta eta Mendizabal bertsolariak bertso saioa eskaintzekoak ziren basilizaren kanpoaldean; eguraldia ikusita, tabernan bota zituzten bertsoak. Adinekoek, bitartean, salda beroa, ardoa... hartzeko parada izan zuten. Eguerdian, Behartzana jatetxean bildu ziren 80 lagun inguru bazkaltzeko; bertsolarien txantxak entzuteaz gain, Xapre eta bere laguntzailearen trikiti doinuez gozatu zuten.

Euria egin arren, ekitaldiak bere horretan mantendu ziren; arratsaldean, *tren txu-txu*-aren barruan sartu eta herria zeharkatzeko aukera izan zuten herriko txikienek eta gurasoek. Zamarrak soinean, herriko plazatik abiatu eta herriaren punta batetik besterako ibilbidea egin zuten trenaren gainean. Eta ondoren, berotzeko-edo txokolate-jatea izan zen Jubilatuaren egoitzan; bertan, gazte-txoekin batera adineko ugari izan ziren. Horrela eman zioten amaiera San Martin Egunari.

Kultura zinegotzi Joxe Mari Goikoetxea gustura agertu zen egunaren martxari buruz galdetzean: «Gure asmoa San Martin Eguna indartzea zen eta horretarako ekitaldi desberdinak antolatu ditugu; eguraldiak lagundu ez arren, jendeak ondo pasatu du eta hori da garrantzitsua. Hurrengo urtean ere, San Martin Egunerako ekitaldiak antolatzeko gogoz agertu zen Goikoetxea.

Astoa nagusi

San Martin eguneko ekitaldirik bitxiak euria eta hotza izan zituen lekuko Amasan ere. Astoa eta gazte taldearen arteko lehia animalia nagusitu zen. Urnietatik etorritako astoak 75 plaza burutu zituen 400 kiloko harriarekin hoge minututan; gazteek, berriz, 59 plaza egin zituzten. Garikoitz Etxeberria, Jokin Zendoia, Jon Urrestarazu, Mikel Arretxe eta Imanol Goikoetxeak osatutako boskotearen



Amasa. Astoa azkarragoa izan zen gazte taldea baino 400 kiloko harriari tiraka. I. GARCIA

ahaleginak jendearen animoak eta txaloak jaso zituen, baina ezin izan zuen astoaren indarra gainditu.

Goizeko bertso saioa ez zen aurrera atera eguraldi kaskarrarengatik, baina gero, bazkaloan Arantzabi jatetxean bildutakoek gozatzeo aukera izan zuten Larrañagaren eta Irazuren bertsoekin. Arratsaldean Amasako Pala Txapelketaren finala jokatu zuten frontoan.

toian. Egoitz Bengoetxeak eta Beñat Iguaranek osatutako bikotea izan zen irabazlea eta bigarren Imanol Goikoetxea eta Jokin Zendoia sailkatu ziren.

Gaur hurrei zuzendutako ekitaldiak izango dira arratsaldean: Pirritx eta Porrotx pailazoaren saioaren ostean, txokolata jana izango dute. Ondoren, bakailao lehiaketa egingo dute eta gauean Trikizio taldearen dantzaldia izango da.

GAUR, AMASAN ▶

Gazteen eguna.

17:15. Pirritx eta Porrotx pailazoak. Ondoren, txokolata jana.

20:00. Amasako XIII. Bakailao Lehiaketa. Ondoren prestatutako bakailaoa jango dute, sagardoaz lagundurik.

23:00. Dantzaldia Trikizio taldearen eskutik.

IRURA ▶

Irteera jubilatuentzat Irun eta Getariara

Irurako Udalak irteera antolatuta du jubilatuentzat datorren ostegunerako, hilak 18. Irunen izango dute lehen geldialdia eta bertan Tren Berdea hartuko dute. Jarraian Arano jatetxean bazkalduko dute eta arratsaldean Getariara joango dira, Balentziaga museoa ikustera. Izena emateko udaletxera zuzendu behar da.

AMEZKETA ▶

Urteko plangintza zehazteko herri batzarra

Herri batzarra egiteko deialdia luzatu du ezker abertzaleak gaurko; bertan, urteko plangintza zehaztuko dute, besteak beste. Bilera 20:00etan izango da gela ballioan.

AMEZKETA ▶

Gasherbrum II-ari buruzko diaporama

Galtzaundi-k eta Udalak antolatuta, Joxe Ramon Agirre, *Marron-en Bizitzaren bidea*. *Gasherbrum II* diaporama emanaldia izango da gaur gela ballioan. Emanaldia 19:00etan hasiko da.

IRURA ▶

Ikastaroetan izena emateko aukera

Irurako Udalak antolatuta, zenbait ikastaro jarriko dira martxan azaroa eta abendua bitartean. Guztira bost ikastarotan parte hartu daiteke: mantentzeko gimnasia, areto dantza, sukaldaritza, antzerkia eta ipuin kontaketa. Mantentzeko gimnasia ikasturtean zehar izango da eta beste ikastaroak Gabonak bitartean. Ikaslearen artean finkatuko dira ordutegiak, ipuin kontaketa ikastaroarena, salbu. Horren egunak dagoeneko jarrita daude: azaroak 22 eta 29, eta abenduak 9, 13 eta 20. Izena eman nahi dutenek gaur dute azken eguna horretarako Irurako udaletxean.

ZIZURKIL ▶

Kontzertua Aurrera tabernan gaur gauean

Zizurkilgo Aurrera tabernan kontzertua izango da gaur gauean, 23:30ean. Flying Dutchman taldeak emango du kontzertua. AEBko talde honek garage-punk musika mota jotzen du. Sarrera doan izango da.

ANOETA ▶

Ipuin kontaketa saioa asteartean udal liburutegian

Anoetako Udalak ipuin kontaketa saio ezberdinak antolatuta ditu. Lehenengoa asteartean, hilak 16, 18:00etan izango da udal liburutegian, Pello Añorgaren eskutik, HHko 2. eta 3. maila eta LHko 1., 2. eta 3. mailakontzat.

ELDUAIN ▶

Afaria eta hitzaldia Urdelar biltokian

Elduaingo ezker abertzaleak antolatuta, afaria egingo dute gaur gauean Urdelar biltokian. Afaria 21:00etan hasiko da eta bertan Euskal Zikloari buruz hitz egingo dute.

hitza

lagunen

txokoa

zozketen irabazleak

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'MAR ADENTRO' filmerako 2 sarreraren zozketaren irabazlea:

MARGARI SAN MIGUEL ZABALA (TOLOSA)

▶ **BALLANCER** presoterapia berrirako 3 saioaren irabazlea, **ELIXABETE INSAUSTI HITZAREN HARPIDEDUN LAGUNTZAILE** alegiarra izan da.

Maite

9:00etatik 13:00etara
14:30etik 20:00etara

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 12a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzola, Aduna, Altzibar, Alegia, Alkiza, Alzo, Ameketa, Anosta, Balarain, Belantza, Berastegi, Elduain, Hermita, Iturza, Iruja, Larrail, Lezaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Vilabona, Zizurkil.

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

08

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Berrobi. XII. Frontenis Txapelketarako izen-ematea zabalik da: udaltxeian, Urkola tabernan, Iriarte jatetxean eta Aralar Kirolak dendan (Tolosa). Gaur da azkeneko eguna. Bikote bakoitzak 10 euro ordaindu behar du, eta banakakoek 5 euro.

Hernialde. Hernialdeko Rolleski Igoera, bihar arratsaldean. Izen-ematea: Alpino Uzturren (Gudari 5. Tolosa), 652 77 84 25 telefonoan (arratsaldean) edo alpinouzturre@begira.com posta elektronikoa.

Iruira. Ikastaroetan izena emateko epea zabalik: mantentze gimnastika, areto dantza, sukaldaritza, antzerkia eta ipuin kontaketa. Gaur da izena emateko azken eguna, udaltxeian.

Leitza. Garagardo Festa. Bihar afora antolatuta du Torrea elkarteak, horrelakoetan ohikoak diren jakiek; betiko garagardo motaz gain, beste sei dastatzeko aukera izango da. Festa giro ederra, 20 euroren truke. Txartelak salgai daude, gaur arte, Torrea tabernan.

Tolosa. Hariizek antolatuta, ibilaldia Tolosako hainbat txokotatik, etzi goizean. Joan nahi duenak 09:30ean elkartean egoitzaren aurrean (Emeterio Arrese) agertu behar du.

Tolosa. Munduko ipuinak Nairobitarra autobusaren formako liburua eta mahai-jolasaren aurkezpena. 18:00etan, Haur Liburutegian. Josu Iztuetan bidaiari tolosarraren eskutik. Ondoren, diapositiba emanaldia, ipuin kontaketa eta mahai-jolasen eta liburuen zozketa.

Tolosa. Aragoi Eguna. Bihar, 22:30etik aurrera, Bonberenean: Pelo Plumas eta Sonic Revolution taldeak. Sarrera: 5 euro; lukainka

pintxo eta ardoa banatuko dira sarrerarekin.

Tolosa. IV. Mus Txapelketa Azkarra. Bihar, 16:30etik aurrera, Beotibarren. Fronton kafetegia antolatuta. Izen-ematea, 16:15 arte, bertan.

Tolosa. Gazte Topagunearen inaugurazioa. Bihar, 16:30ean hasita, Kultur Etxean. Zozongo perkusio taldearekin kalejira izango da, Triangulotik abiatuta. DJ-ek ere alaituko dute ekitaldia.

Tolosa. Denboraldi amaierako afora egingo dute Tolosa CFko zikloturistek hilaren 27an. Izena eman nahi duenak 943 65 50 92 edo 649 40 60 85 telefono zenbakietara (Dani) deitu behar du.

ERAKUSKETAK

Ibarra. San Bartolome jaiak 2004 argazki erakusketa. Abenduaren 3a arte, Benito Izagirre Kultur Etxean; astelehentik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Tolosa. Nerea Lopez Lanzeta margolariaren koadroak, Fronton kafetegian.

Tolosa. Ana Jesus Ansorenaren keramikak ikusgai, Lanbroa tabernan.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Amezketak. Bizitzaren bidea, Gasherbrum II espedizioari buruzko ikus-entzunezkoa. Jose Ramon Agirre Marron-ek eskainita. 19:00etan, balioanizdun gelan. Galtzaundi Euskara Taldeak eta Udalak.

JAIK

Amasa. Gaur, Urmeen Eguna. Pirrixt eta Porrotx pailazoak, 17:15ean; ondoren, txokolate jatea; XIII. Bakailao Lehiaketa, 20:00etan; ondoren, bakailao eta sagardo dastaketa; eta dantzaldia Trikiotik taldearekin,

23:00etan. Bihar: urmeen krosa, 10:30ean; sega apustua herriko gazteen eskutik, 12:30ean; txekor jatea, 14:00etan; ondoren, sorpresa gazteen eskutik; bertso jaialdia, 22:30ean (Amaia Agirre, Sustrai Colina, Anjel Mari Peñagarikano eta Iker Zubeldia); ondoren, dantzaldia Imuntzo eta Belokirekin.

KIROLAK

GAUR

Areto futbola
 ▶ Laskorain-Euromar kafetegia (1. Maila A. 21:15, Berazubi).
 ▶ Irizabal Arr.-Eskolapioak B (1. Maila A. 21:30, Sahatsaga).
 ▶ Aralar Kirolak-Tecnun (1. Maila B. 22:30, Uzturpe).
 ▶ Tinta Billabona-Zestoa (Em. Maila. 20:45, Olaederra).

ESKU PILOTA

(Elkarteen Arteko Txapelketa)
 ▶ Aurrera Saiaz-Urnieta (Kadeteak. 19:30, Bidegoian).
 ▶ Aurrera Saiaz-Txap. (Gazteen Maila. 19:30, Bidegoian).
 ▶ Elordi Herrigintza-Arrasateko (Gazteak. 21:00, Ikaztegieta).
 ▶ Zazpitturri2-Lazkao (Gazteak. 22:00, Amezketak).
 ▶ Zazpitturri-Aurrera Saiaz (Nagusiak. 22:00, Amezketak).

PALETA GOMA

▶ Urnieta-Kuku1 (Nagusiak. Emakumez. 21:00, Urnieta),

ZESTA-PUNTA

(Elkarteen Arteko Txapelketa; Santa Luzia, 19:00)
 ▶ Beotibar1-Jai Alai2 (Kadet).
 ▶ Beotibar-Zumaia (Gazteak).
 ▶ Beotibar2-Jai Alai (Nagusiak).

BIHAR

Areto futbola

▶ Hegoalde-Goierrri (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 19:00, Berazubi).
 ▶ Carnicerias Saenz-Ibarra

(1. Maila A. 17:30, Gasteiz).
 ▶ Lauburu-Box Natura (Gazteen Maila. Belabieta).
 ▶ Aldapetak-Eskolapioak A (Gazteen Maila. Marianistas).
 ▶ Zestoa-Eskolapioak B (Gazteen Maila. 12:00, Zestoa).

ESKUBALOA

▶ Tec. Elgoibar-Eskolapioak (Senior Maila. 17:30, Olaizaga).

ESKU PILOTA

(Elkarteen Arteko Txapelketa)
 ▶ Intza-Aurrera Saiaz (Nagusiak. 10:00, Lasarte).
 ▶ Eibar-Elordi Herrigintza (Kadeteak. 11:00, Eibar).
 ▶ Zazpitturri 1-Zumaia (Gazteak. 16:00, Amezketak).
 ▶ Zazpitturri-Tartalo (Kadeteak. 16:00, Amezketak).
 ▶ Zazpitturri 1-Eibar (Nagusiak. 16:00, Amezketak).
 ▶ Zazpitturri-Inbaxurrondo (Nagusiak. 16:00, Amezketak).
 ▶ Elordi-Aurrera Saiaz2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
 ▶ Behar Zana 1-San Esteban2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
 ▶ Arrera Saiaz-Behar Zana2 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
 ▶ Erniope-San Esteban1 (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
 ▶ Behar Zana-And.Pagola (Kadeteak. 18:00, Zizurkil).
 ▶ Arrasateko-Behar Zana (Nagusiak. 18:00, Zizurkil).
 ▶ Oiarpe-Kuku (Nagusiak. 18:30, Madalensoro).
 ▶ Alde Zaharra-San Esteban (Nagusiak. 18:30, Madalensoro).

FUTBOLA

▶ Tolosa-Ordizia (Gorengoen Maila. 16:30, Berazubi).
 ▶ Euskalduna-Tolosa B (Lurraldekako 1. Maila. 18:30, Alluralde).
 ▶ Urnieta-Tolosa (Nesken Liga. 17:30, Urnieta).
 ▶ Billabona-Ikasberri (Jubenilen 1. Maila. 15:30, Aratzain).
 ▶ Intxurre-Internacional (Jubenilen

1. Maila. 15:30, Elorri).
 ▶ Sporting Herrera-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 17:30, Donostia).
 ▶ Tolosa-Amaroz (Kadeteen 2. Maila. 16:00, Zubieta).

ETZI

Areto futbola

▶ Gaztelueta-Lauburu (Gazteen Maila. 16:45, Bilbo)

FUTBOLA

(Elkarteen Arteko Txapelketa)
 ▶ Hernani-San Esteban (Kadeteak. 10:30, Hernani).
 ▶ Aurrera Saiaz-Bergara (Nagusiak. 11:00, Beotibar).
 ▶ Aurrera Saiaz-Illunpe2 (Nagusiak. 11:00, Beotibar).
 ▶ Aurrera Saiaz3-Ramunxo (Nagusiak. 11:00, Beotibar).

FUTBOLA

▶ Amaroz-Danena (Lurraldekako 2. Maila. 10:30, Elorri).
 ▶ Usurbil-Inburre (Infantilak. 17:30, Bidegoian).
 ▶ Tolosa-Sporting Herrera. 16:30, Berazubi).

SASKIBALOA

▶ Ganbara Eusk.-Aralar Kirolak (Senior Maila. 10:00, Alluralde)

MUSIKA

Tolosa. Di Bosco Quartet-en emanaldia. 23:30ean, Fronton kafetegian.
Tolosa. Señor No eta Nuevo Catecismo Catolico taldeen kontzertua. 22:30ean, Bonberenean.

ZINEMA

Tolosa. Mar adentro. Gaur, 22:30ean. Bihar, astelehenean eta asteartean (Ikuslearen Eguna), 19:30ean eta 23:30ean. Igandean, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Jokin Gurrutxaga Manzano (Ibarra). Gaur 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat familaren partetik.



ZORIONAK

Jose Antonio eta Mari. Hilaren 10ean 25 urte elkarrekin. Familia osoaren partetik.



URTE ASKOAN

Eider Lasarte (Berastegi). Gaur urtebete. Muxu handi bat familaren eta, bereziki, Uxueren partetik.

HITZA, zorion agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaltxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.
 Mila esker!



NOELIA LATABURU

JOERA BERRIAK NAGUSI

Etxea atontzeko orduan ahaztu ezin daitezkeen osagai guztiak joera berriekin bat datoz, eta modernitatea klasizismoarekin elkar nahasten da

P. BRAVO
Sancamendua eta iturgintza
Gasa eta berokuntza
Kondeko aldapa, 1 • 20400 TOLOSA
Tel.: 943 67 45 22

LOATZO Etxeko Osagaiak
Lanparak, koadroak,
koltxoak, e.a.
Urrutizkiña 943 69 21 35 - Errota kalea, 3 - 20150 BILLABONA

MONTO Tindu Margoak, S.L.
Margoaren etxea
Oria kalea, 6 - behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 44 24 • Faxa: 943 69 84 12
TINDUMARGOAK@terra.es
MARGOAK

ESTILO EZBERDINAK BAT EGINEZ

Alfonbretan eta altzarietan joera modernoak kolore eta estilo klasikoekin nahasten dira apaintzen den logelan lortu nahi den giroaren arabera



Maria Jesus Iraola Poxpolin bere dendak eskaintzen dituen altzari batzuen artean. NOELIA LATABURU

Aladdinena zeruak zeharkatzeko ahalmena bazuen ere, ziurrenik ez zuen joerekin bat egingo. Horretarako Tolosara gerturatzea baino ez dago. Herriaraino Txinatik, Turkiatik, Nepaletik edo Iranetik ailegatzen da alfonbren moda. Joera berrietan lehenak dira Anadolu dendan. Josune Argote eta Mufit Oruc senar-emazteek eta dendaren jabeek azaltzen dutenez, alfonbren kasuan diseinua da azpimarragarria. «Gaur egun asko eramaten da diseinua eta gu horretara moldatzen gara», azaldu du bikoteak. Duela hamabost urte ireki zuten denda, eta orduko modak gaurkoarekin zerikusirik ez

zuela diote biek ere. «Arroparekin gertatzen den bezalaxe, alfonbren ere bat egin behar dute joerekin», adierazi dute Argotek eta Orucek. Gainera, joera hauen azkartasuna azpimarratu dute, eta urteroko aldatetarako «nabariak» direla esan dute, nahiz eta ez den arroparen abiadura bortitza hori bezain bestekoa.

Gauza berbera gertatzen da altzarietan ere. Poxpolin dendako jabea den Maria Jesus Iraolak azaltzen digunez, moda apainketa arloan ere nabaria da. «Ez da arroparena bezain bortitza, baina lau edo bost urtetik behin joerak aldatu egiten dira», azaldu du Iraolak.

Aurtengo joera bi arloetan modernoa da, garaikidea. Koloreak asko ematen dira, baina beixa eta teja bezalako kolore neutroak ere asko saltzen dira. Altzarietan linea garbiak saltzen dira gehien, baina kolore eta estilo nahasketak ere eramaten dira orain. Jendeak orain bi estiloak nahasten ditu apaindu nahi duen logelaren arabera eta euren estiloaren arabera. Poxpolin dendako jabeak azaldu duenez, jendeak lortu nahi duen giroaren arabera saltzen dira altzariak. «Guk jendeari aholkuak ematen dizkiogu dohainik, gure esperientzia eskainiz, beraien gustuak kontuan izanik, nos-



Anadoluko jabeak: Mufit Oruc eta Josune Argote. NOELIA LATABURU

ki», esan du Iraolak. Bi dendetako jabeek diote bezeroari erosi nahi duena emateko prest egon behar dutela beti. «Aukera handia izan behar dugu beti, izan ere, bezeroak gauza zehatzak nahi dituzte», azaldu du Anadoluko bikoteak.

Alfonbren merkatua erraza ez den arren, ez dira kezku. «Jendeak beti erosten ditu etxerako apaingarriak», esan digute biek, eta nahiz eta etxebizitzaren prezioaren hazkundea nabaria izan, Josune Argoteren eta Mufit Orucen ustez «behin etxea izanda, ondo apaindua izatea gustatzen zaio jendeari». Gainera, jendeak aldizkariak asko irakurtzen dituela eta bertan ikusitakoa erosi nahi duela azaldu dute. Mufit Orucek dioenez, «hemen jendea aurrera-

tua da eta modarekin bat doa; gustu oneko jendea da». Altzariaren kasuan, berriz, jendeak pixkanaka sartzen ditu apaingarriak euren etxeetan, batez ere gazteek. «Dena den, gazteek oso gustu ona dute orokorrean», aitortu du Poxpolin dendakoak.

Alfonbretan erabiltzen dituzten ehun motak, gehienbat, artilea, zeta eta kainamoa dira eta baita azken joerekin bat doazen belarrezko alfonbrak ere.

Beraien eskaintza aukeratzeari erraza ez dela aitortzen dute. «Banaka egiten dugu hori, batez ere diseinuzkoak direnean», esan dute Anadoluko jabeek. Altzariaren kasuan ere bezero bakoitzak lortu nahi duen giroaren arabera egiten dituzte eskaerak. «Guk bezeroak nahi duenaren arabera egiten dugu lan, haien eskaerekin bat eginez», azaldu du Iraolak. Erosleen artean adin ezberdinetakoak daude. «Ezkonberrietatik hasita, adin ezberdinetako jendearekin egiten dugu topo», esan dute.

ITURGINTZA LANAK • KALEFAKZIOA
ETA GASA • ZERAMIKA

gaztelu

LANDA BEHIKA INDUSTRIALDEA • LEITZA
Tel.: 948 51 00 86 - Faxa: 948 61 08 56
e-mail: gaztelu@infonegocio.com

JOSEAN
ITURGINTZA

- iturgintza
- berogintza
- gasa
- gasoilezko instalazioak

☎ 656 41 68 08
☎ 656 41 69 30

Kale nagusia,30 • 943 69 33 52 • IRURA

ANADOLU

ALFONBRA PERSIARRAK
eta KILIM-ak

Estiloa duten berrikuntzak

Gernikako arbola, 2
20400 TOLOSA
Tel.: 943 65 00 75

Urbietan, 55
20006 DONOSTIA
Tel.: 943 46 08 21

ITURRIOZ s.l.
CARPINTERIA

- Sukaldeko altzari eta armarioen fabrikazio propioa
- Elektrogailuak, atek, tarimak, leihoak, mota guztietako eskalerak
- proiektuak
- gremioen koordinazioa

San Blas auzoa, 57 • TOLOSA
Tel.: 943 67 25 11 • Faxa: 943 67 03 20

MERKATOLOSA

- Koltxoiak eta Somierrak
- Altzariak
- Logelak
- Osagarriak

...
Santa Clara, 5 beheko
Tel.: 943 67 47 81
20400 TOLOSA

ETXEKO 'TXOKOA' ERE MODAN

Iturgintza alorrean ere joera aldaketak nabariak dira eta estilo nahasketak egiten dira; herri txikietan estilo klasikoak gailentzen da, handiagoei modernitateeruntz jotzen duten bitartean

Etxea bikain egoteko, baina, aurrez aipatutako barneko apainak ez dira nahikoak izaten. Beharrezkoa da negua igarotzen lagunduko duten berogailu onak eskura izatea, eta baita norberaren etxeko goxotasunetik kanpo geratzen denaz babestuko duten beirak izatea ere. Eta zer esanik ez etxe guztietan faltatu ezin dena: komuna. Ez da ezer hobea gorik, zerbitzu hauek guztiak batzen dituena baino. Horretarako, Gaztelu Iturgintzaraino gerturatu besterik ez da. Leitzan kokatua dagoen kooperatiba txiki honek bezeroei zuzenduriko eskaintza ezberdinak ditu. Bertara jo du TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK etxe apainketarako ematen dituzten aukera eske.

Alde batetik berokuntzarekin zerikusia duten elementuak, berogailu salmenta, horien instalazioak... topa daitezke Gaztelu Iturgintzan. Bestalde, saneamenduak hartzen ditu bere esku eta etxeetarako beirak ere baditu aukeran. Zerbitzu ezberdinak bateratzen ditu, beraz, Gaztelu Iturgintzak.

Arlo honek ere urtero joera berriak ditu, eta bertako langilea den Maite Domentxek azaltzen duenez, «komunetan ere urtero eredu berriak ateratzen dira, material ezberdinez egindakoak». Material horien artean portzelana eta altzairua dira nagusi. Konkretetarako ere egur ezberdinak erabiltzen dira, argiagoak, ilunagoak edo koloretuagoak, kasuan kasu.

Aurtengo kasuan sakonduz gero, beste arloetatik atera dena ondoriozta daiteke; moda guztiak nahastu egiten direla, hain zuzen ere. «Jakina den bezala, norberari kolore bat gusztatzen zaio eta honek eragin handia du», azaldu du Maite Domentxek. Aurtengo denboraldirako, beraz, denetatik era-

MAITE DOMENTXE

GAZTELU ITURGINTZAKO LANGILEA

«Komunetako modan ere urtero material ezberdinez egindako eredu berriak ateratzen dira»

biltzen da. Eredu moderno eta ausartenetatik, klasikoenetara. Domentxe Gaztelu Iturgintzako langileak dioenez, herri txikietan errazagoa da estilo klasikoak saltzea, batez ere zonaldeko baserrietan eta inguruetan. Dena den, norberaren gustuak norberaren gustuak dira, herriatik kanpo ere lanak enkargatzen direla argitu du langileak, eta Donostian eta Iruñean lanak egiten dituztela esan du. Herrietan, beraz, salduena estilo klasikoak den arren, badira mordenitatearekin ausartzen direnak ere. Beirako kontak, portzelanarekin batera edota dena beirakoa, egur mota ezberdinak, tamaina ezberdinak. Aukerarik ez da falta, bederen. «Jendearen eskaera ere ekonomiarekin hertsiki lotuta dago», esan du Domentxek. Etxeak berriak direnean, inbertsioa handiagoa izaten ohi da; zaharrak berrikerako orduan, berriz, ez



Gaztelu Iturgintza kooperatiba Leitzan dago; han izan da HITZA aurtengo joeren berri izateko. JAIONE ASTIBIA

horrenbeste, baina betiere egoera bakoitza «ezberdina eta berezia» dela azpimarratu du.

Gaztelu Iturgintzakoek beraien eskaintzen eredu ezberdinak dituzte. Hauek saltzen dituzte eta ondoren instalazio prozesuari ekiten diote. Herriari, komunen ekipamendua-

rekin batera, materiala gordetzeko lekua eta erakusketa dute. Proiektuak egiteaz eta aurrekontuak zehazteaz Maria Arretxe arduratzen da. Guztira hamairu langile dira Leitzako Gaztelu Iturgintza kooperatiban. Horien artean, iturginen lan nekeza nabarmentzen du Domentxek. «Alde batetik lana

ez da oso eroso eta bestetik nekeza izaten da», onartu du Domentxek. Kasu ezberdinak jorratzen dituzte: batzuetan enkarguak egiten dizkiete partikularrek eta besteetan haien kargu egoten da lana, eraikuntza berriko etxeetan edota konstruktoretan. Eskatutakoa eman behar zaio bezeroari.

- ALTZARIAK
- APAINKETA

Tel.: 943 67 03 50
Korreo kalea, 27 • 20400 TOLOSA

HITZA, eskualdeko plaza
661 678 818
Toki aproposa iragartzeko
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

Jose Luis Belloso
ULD
proiektuak
obra zuzendaritza eta altzarigintza
Erremontari, 5 behe / 20400 Tolosa-Gipuzkoa / Tel.: 943 67 52 48 / Faxa: 943 67 34 58 / josseluisbelloso@telemine.es

Ezenarro
Leihoko instalagarriak
Denda berria ireki dugu
Zure leihoak gurean
Leihoko instalagarriak • PVC •
Haustura aluminioa •
Egur arotzgingintza
San Frantzisko, 26 - behea
20400 TOLOSA - Tel.: 943 11 85 36
Faxa, 943 11 84 53

POXPOLIN
• Enmarkazio mota guztiak (gure tailerra)
• Gure dekoratzaileen aholkularitza bezeroaren etxean
• Aukera handia molduretan eta obra grafikoan
• Opari aukera handia
www.poxpolin.com
San Francisco, 21 • 20400 TOLOSA • ☎ 943 655 355
Uzturre plaza, 7 • 20160 LASARTE ORIA • ☎ 943 363 072
poxpolin@clientes.euskaltel.es

ORiA S.L.
BEROGAILU, GAS ETA
ITURGINTZA INSTALAZIOAK
ZERAMIKA-BAINUA
Euskalerría, 4 behea
Tel.: 943 67 32 89 - Faxa: 943 69 71 20
20400 IBARRA (Gipuzkoa)

TOLOSARRAK ARGITZEKO HELBURUZ

Tolargi udal enpresak bukatu berri duen kanpainaren balorazioaren ondorio nagusia tolosarrek eta Udalak herriaren inguruan dituzten kezkak bat datozela izan da



Ezker eskuin, Jon Otaegi, Olatz Peon Tolargiko lehendakaria eta Juan Carlos Ugarte. NOELIA LATABURU



Geurea,
betiko argia

Tolargiko azken triptikoa. HITZA

Botoia sakatu; horixe da herri-tar batekin egin behar duen guztia bere etxea argiz janzteko. Baina horren atzetik, noski, lan nekeza dago. Horren ardurarako Tolosak zuzenean kudeatzen du energia, Tolargi udal enpresaren bitartez. Era berean, Tolosak berak ere kudeatzen du gasa, Tolosa Gasa enpresaren bitartez.

Tolargiren irabaziak herriarentzat onuragarriak diren aldatetarako egiteko erabiltzen dira, bai hirigintzarako bai aisialdirako. Besteak beste, parke berrien eraikuntzarako, gazte gunekak, autobusak, ibilbide publikoak txukuntzeko, Eguberrietako argietarako...

Zortzi dira enpresa honetan buru-belarri aritzen diren langileak, ingeniariak, elektrizistak... Lehendakaria Olatz Peon da, Tolosako Udaleko alkateorde eta zinegotzia. Alde batetik, Tolosan argia eskaintzen dute: «Tolosako ibaiaren eskuinaldea hartzen dugu guk, gainontzekoa Iberdrolak egiten du», azaldu du Peonek. Bestalde, Tolosako argi publikoko man-

tenimenduaz arduratzen da Tolargi, farolez edota zonalde berrietako instalazioez, besteak beste. Azken egunetan Tolosan ikus daitezke Eguberrietako lehen arrastoak. «Orain, Gabonetako argiak Tolargiren esku jartzen ari gara, eta udal-letxeari ezertxo ere kobratu gabe», adierazi du Ion Otaegi, Tolargiko langileak.

Duela gutxi, Tolargik, Tolosa Gasarekin batera, hilabete eta erdi iraun zuen kanpaina abiarazi zuen tolosarren artean. Arista enpresak eratutako kanpainaren oinarriak kartelak eta postalak izan ziren. Bertan, *Tolosako argia, geurea, betiko argia* lelopean, Tolosako kale zaharrak ikus zitezkeen, Tolargi eta Tolosako Gasa ordezkatzeko zituzten bi kolore ezberdinetako marraz zituzte. Urdina gasari zegokion; horria, berriz, energiari. Tolosak izan duen garapenaren isla izan nahi zuten postalak eta kartelak, bazkideak jasotzen dituzten fakturekin batera banatu zituzten proiektuaren sustatzaileek egun horietan. Ho-

nekin batera, tolosarrek euren iritzia eta eskaintzak lutzatzeko aukera izan zuten Igarondo Elkarte komertzioetan jarri zituzten eskuorrien bidez: hau da, irailean hasi eta urriaren 22ra arte iraun zuen kanpainaren baitan eskuragarri egon ziren postaletan euren proposamenak idatziz. Ideia onenak saritu egin zituzten antolatzaileek, merkatariari zein erosleari azken hilabeteko argi eta gas fakturak doan utzita. Kanpaina borobiltzeko, abenduan, egutegiak banatuko dituztela iragarri dute, Tolosako argazki zaharrek in egindakoak.

Eraitzen balorazioa

Egun horretan egin zuten prentsaurrekoan, jasotako iritzien balorazioa egin zuten. Guztira, 377 txartel bildu ziren. Ondorio nagusia jendearen eta Udalaren ardurak antzekoak direla azpimarratzea izan zen. Hauek izan ziren, beraz, herritar horien kezkak: %15 aisialdirako aukeren ingurukoak izan ziren; beste %15 kaleko altzarien ingurukoak. Honen barruan ezberdintzen dira berdegunak, komun publikoak... Tolargiren eta Tolosa Gasaren kanpainan parte hartu zuten herritarren %14k bidegorriari buruzko kezkak ditu; %13k, berriz, parkearen inguruan galdegin zuten; %11k, hirigintzaren barneko gaiak, batez ere, aparkamendua. Beste %8k argiaren eta gasaren aldeko eskaerak egin zituzten: kalean gasa jartzea edota fakturak merkeagoak izatea, hain zuzen ere. Jasotako iritzien %4 zu-

KANPAINA

Tolargiren eta Tolosa Gasaren kanpaina borobiltzeko, egutegiak banatuko dituzte sustatzaileek abenduan

mardi Handia berreskuratzearen alde izan zen. Eta nahiz eta babes gutxiago jaso, aipagarriak dira, era berean, %3k aiputan izandako zakur gorotzen gaia eta, portzentaia berdinarekin, kirolaren inguruan Tolargiren eta Tolosa Gasaren kanpainari erantzuna eman dioten herritarrek egindako kekek. Azkenik, eta jasotako txartel guztien % 2k esandakotaren arabera, herriko segurtasuna «handitu egin behar da».

Iritzi hauek guztiak kontuan hartu dira eta batzuekin jada hasi dira aldatetarako egiten. Adibidez, komun publikoaren kasuan, zezen-plazan hasi dira berrikuntza lanekin. «Beste adibidea bidegorriaren inguruan datorkigu, izan ere, jada aurreikusia dago proiektua; abenduan hasi eta lau hilabeteren buruan izango du amaiera» azaldu du Olatz Peonek. Ez dira, baina, adibide bakarrak: hirigintzaren kasuan, TAO site-man aldatetarako izan dira; parke berria eraikitzen hasi dira dagoeneko; zakur gorotzen inguruan ere ordenantza berria dago eta kirolaren inguruan Usabalgo proiektua martxan da. «Honekin argi geratzen da Udalaren eta jendearen ardurak oso antzekoak direla», esan du Olatz Peonek.



argiketariak & igeltseroak
iturkinak & pintoreak
arozak

eskaialista & dekoratzaileak
zoruak & leihoak
altzariak & sukaldeak

**gremioen
koordinazioa**

Nafarroa etorbidea, 12
20400 Tolosa
Tel.: 943 65 36 40



T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

www.tolargi.com

Pablo Gorosabel, 34 B • Tel.: 943 65 00 16